

**AIXERROTA BHI 2004-2006**  
**Euskara Mintegia**

**SELEKTIBITATEA**

**Ohar akademikoak:**

1. Hurrengo testuak azken urteotan Unibertsitatera Sartzeko Hautaprobetan, hots, Selektibitatean jarritakoak dira.
2. Denbora soberan izaten da azterketa hau egiteko: ordu eta erdi. Ez ibili arineketan, azterketa edozelan egin eta lehenbailehen bukatzeko asmoz.
3. Irakurri ondo testua eta galderak. Hauek zati bat baino gehiago badute, erantzun denei. Ez ahaztu zati guztiei erantzutea.
4. Komeni da galderen eta ariketen idazpuruak (enuntziatuak) kopiatzea.
5. Ariketen ordena alda daiteke, baina jarri ariketaren zenbakia eta enuntziatua. Horrela, zuzentzailea ez da nahastuko.
6. **Idazlana.** Azterketaren erdia izaten da (4-5 puntu). Kalifikazio ona lortzeko, bete urrats hauek:
  - a) Antolatu gidoi bat.
  - b) Garatu ideiak paragrafoka.
  - c) Eman kohesioa testuari: erabili testu-antolatzaileak.
  - d) Idatzi argi eta garbi eta kaligrafiaz. Ez utzi azterketa zirriborraturik. Utzi margenak eta jagon aurkezpena.
  - e) Gainbegiratu ortografia eta sintaxia.
  - f) Idazlanaren luzera izan dadila eskatzen dena baino apur bat gehiago.

**Ohar zuhurrak:**

1. Ez fidatu azterketa erraza dela-eta. (Gogoratu: *Non fida, han gal.*)
2. Galderei erantzutean, orekaz jokatu. Ez erantzun oso labur (*Bai; Ez*) eta ez luzatu gehiegizko xehetasunetan. Erantzun galderari zehatz, baina osorik.  
Kontuz ibili atal baino gehiago duten galderekin.
3. Ez kopiatu testuko zatiak hitzez hitz.
4. Ez idatzi txarto testuan bertan dauden izenak (pertsonak, lekuak...).

## Selektibitatea 1998 Euskara eta Literatura (Azterketa / 1)

Hego Afrikan azken aldian gailentzen<sup>1</sup> ari diren idazleen artean sonatuenetakoa da Riana Scheepers. *Emakume zuluak. Sutondoan* izeneko liburuan bildu dituen narrazioak hizkuntza askotara itzuli dira dagoeneko.

Hego Afrikak 41 milioi bizilagun ditu. Horietatik 30 milioi inguru beltzak dira, bost milioi inguru zuriak, hiru milioi coloured-ak, eta milioi bat-edo asiarrak. Beltzak bi talde nagusitan banaturik daude: nguni taldea eta sotho taldea. Zuriak ere bi talde nagusi osatu dituzte: afrikanerak eta ingeles jatorrikoak. Riana Scheepers afrikanerra da. Afrikanerak holandar kalbinisten eta Frantziako erregeri ihesi etorritako higanoteen ondorengoak dira. Afrikaansez mintzatzen dira. Afrikaansa nederlandera oinarri harturik, frantsesaz eta bertako hizkuntzez aberastutako patois-a da.

Afrikaansa Hego Afrikako hirugarren hizkuntza garrantzitsuena da, eta lurraldez hedatuena<sup>2</sup>. Hego Afrikako eskualde<sup>3</sup> gehienetan hitz egiten da eta, beraz, komunikaziorako hizkuntza garrantzitsua bihurtu da. Literaturan, hala ere, ez du tradizio handirik. Hizkuntzak berak ere 100 urte inguruko bizia du eta hizkuntza horretan idatziriko literatura oso gaztea da. Mende honen hasieran agertu ziren lehen olerki idatziak. Gero hasi zen literatura sendoagoa, batez ere ingelesez eta afrikanerren arteko borrorak hizpide<sup>4</sup> zituen.

60ko hamarkadan, afrikaansez idazten zuten egile gehienek politikaz eta sexuaz idazten zuten. Hori dela-eta gehienak zentsuratu egiten zituzten.

Azken urteotan, berriz, batez ere 90eko hamarkadaren hasieratik, afrikaansez idatzitako literatura oparoena<sup>5</sup> eta irakurriena emakumeek idatzi dute. Gehienek ipuinak argitaratu dituzte. Horien artean dago Riana Scheepers. Haren hitzetan "ipuinak idaztea ez da harrizkoa, genero honek ongi erakusten baitu Afrikako bizitza. Dena arin gertatzen da. Hego Afrikak, idazle bati gai asko eskaintzen dizkio".

Riana Scheepers ahozkotasanaren<sup>6</sup> liluratik heldu zen literaturara. Ahozkotasanean hezi zen: «Haur guztiek irrikaz itxaroten genuen egunero ilunabarra, suaren inguruan esertzeko unea. Orduan, argia ezkutatzen zenean, gure amona beltzak ipuinak kontatzen zizkigun bere hizkuntzan. Pertsonaia bakoitzarentzat ahots desberdina erabiltzen zuen. Une magikoak izaten ziren haiek. Ipuin bakoitzaren amaieran tu egiten<sup>7</sup> zuen sutara, ipuineko pertsonaia guztiak erretzeko eta guri amets gaiztorik ez sortzeko». Horrela hazi zen Riana Scheepers unibertsitatera heldu zen arte. Gero, unibertsitatean mendebaldeko literatura ikasi zuen, eta afrikaansezko eta Holandako literaturan graduatu zen. Horrela, amona zuluaren eta mendebaldeko kulturaren erreferentziak jaso zituen. Sutondoan lehenarenak eta unibertsitatean bigarrenarenak. Erreferentzia horiek guztiak baliatzen ditu literatura idazterakoan. Hala ere, amonaren ahotik entzundako zuluaren ohiturak ditu hizpide batez ere. Zuluaren ohituren artean, gainera, emakume xumeen<sup>8</sup> bizimodu latza aipatzen du gehien bat. «Emakume zuluak erabat liluratu naute. Kontra duten guztiari aurre egiten diote, ausartak dira. Oraindik ere, bada bazterketarik. Kultura zulu aparta bada ere, emakume zuluak duintasunez eta harro bizi dira. Harrigarria da. Ez dute garaipen<sup>10</sup> handirik lortzen, baina egunero irabazten dute zerbait».

Eguneroko garaipen duin horiek erakusten dituzte Riana Scheepersen ipuinek. Harentzat, zuluak «ahizpak bezalakoak» dira. Eta haien ohiturak Mendebaldean ezagutarazten ditu literaturaren bidez. Emakume zuluaren ahots bihurtu dira, nolabait, haren liburuak.

- 
- |  |   |
|--|---|
| 1 gailendu: nagusitu, beste guztien artetik nabarmendu | 7 tu egin: txistua bota   |
| 2 hedatuena: zabalduena                                | 8 xume: txikia, apala   |
| 3 eskualde: lurralde                                   | 9 bazterketa: baztertea, bazterean uztea  |
| 4 hizpide: hizketa gaia                                | 10 garaipen: borroka edo lehiaketa batean aurkariari buruz lortzen den nagusitasuna |
| 5 oparo: ona eta ugaria dena                           |   |
| 6 ahozkotasan: ahoz iritsi zaiguna, idatzizkoa ez dena |   |
- 



### A. Ulermena.

- Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - Nor da Riana Scheepers?
  - Zer da afrikaansa?
  - Afrikaansez idatzitako literatura aberatsa da?
  - Nolako erreferentziak biltzen ditu Riana Scheepers-en literaturak?
  - Nolako pertsonaiak aipatzen ditu, batez ere, bere ipuinetan?
- Egin ezazu testu horren laburpena eta azal ezazu zein den gai nagusia. (2 p.)
- Testuan ageri diren esaldi hauek beste modu batera eman itzazu. Horretarako, parentesi artean erakusten zaizun bidea erabili behar duzu azpimarraturik dagoena beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute: (1 p.)
  - Erreferentzia horiek guztiak baliatzen ditu literatura idazterakoan. (idazten du)*
  - Azken urteotan, afrikaansez idatzitako literatura oparoena eta irakurriena emakumeek idatzi dute. (emakumeak izan dira)*
  - Kultura zulu behoko mailan bada ere, emakume zuluak duintasunez bizi dira. (nahiz)*

### B. Idazlana. (5 p.)

Kontu kontari jardutea, ipuinak kontatzea eta abar antzinako zerbait dela pentsa daiteke. Orain ez ditugu gauzak kontatzen. Irakurri ere ez gehiegi. Telebista, berriz, nagusi da, beharbada. Azal ezazu 15-20 lerrotan arazo honetaz duzun iritzia.

## Selektibitatea 1999

### Euskara eta Literatura (Azterketa / 1)

Bi urte baino ez ditu, baina Ainhoak lau aldiz pasatu behar izan du kirofanotik dagoeneko. Laster beste ebakuntza bat egin beharko diote, seguru asko. Azkena izango ahal da! Haur alaia da, beti irria ezpainetan. Baina sekulako beldurra die erizainei. Batadunen bat ikusi orduko dardarka jartzen da gaixoa.

Ainhoa haur sentikorra da, alaia baina sentikorra. Inguruko edonori gertatzen zaion edozerk erasaten<sup>1</sup> dio, ondoko jendearen minak biziki hunkitzen du eta beste haurren bat negarrez ikusten badu, lasaitzen saiatzen da. Ezin du belarrondoko bat jasan<sup>2</sup>, ezta telebistan ere, eta ezin zaio *Kukubiltxo* edo *Ahatetxo itsusia* bezalako ipuinik kontatu, hasiera tristea baitute.

Pentsa ezazue zenbat sufrituko duen horrelako haur batek Gurutzetako ospitaleko horma zurien artean, gau osoan gurasoen babesik gabe, gela hotz hartan. Bakar-bakarrik geratu behar izaten du Ainhoak erizain arrotzen artean izu-ikaraz. Beso eta zangoak lotu egiten dizkiote, zundak edo suero-orratzak ez ateratzeko.

Ainhoa elebakarra da, eta ospitalean igaro beharreko gau luzeetan ez du sehaska kanta ezagun bat kantatuko dionik. Egarrizten denean baso bat ur behar duela ulertuko dionik ere ez. Ainhoa ez da etorkina<sup>3</sup>, ez eta etorkinen alaba ere. Durangarra da. Gurasoak oso pozik daude alaba zaintzen duten pediatren lanarekin, baina bat bera ere ez da euskalduna. Munduko medikurik onenak izango dira beharbada, baina ez da onargarria euskaraz ederki dakien haur bat atzerritar<sup>4</sup> sentiaraztea. Non eta Durangon! Ez da politika arazoa, askoz gehiago da. Medikuek eta erizain artean ibili beharra inorentzat ez da atsegina, baina Ainhoa askoz lasaiago sentituko litzateke esaten diotena ulertuz gero.

Baina hau ez da euskararen aldeko idazki bat, giza eskubideen aldeko oihu bat baizik. Ainhoak min! esaten du orratza sartzen diotenean, ura! eskatzen du egarri denean, eta ama! oihu egiten, gauez bakarrik uzten dutenean. Bi urteko durangar maitagarriak une oro<sup>5</sup> bere eskariak ulertuko dituen norbait ondoan izateko eskubide oso-oso du. Euskal Herrian bizi eta euskaraz baizik ez jakitea da bere bekatu bakarra. Eskubide hori ziurtatzen ez den bitartean denok gaude gaixorik.

---

1 erasan: eragin, hunkitu, afektatu

2 jasan: nozitu, eraman, sufritu

3 etorkin: lan arazoengatik-edo berea ez den herri batera bizitzera datorrena

4 atzerritar: kanpotarra, arrotza

5 uneoro: une guztietan, momentu guztietan

---

#### A. Ulermena.

1. Egin ezazu testu honen laburpena eta azal ezazu zein den gai nagusia. (2 p.)
2. Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - a. Nongoa da Ainhoa?
  - b. Zenbat operazio egin dizkiote orain arte?
  - c. Ainhoa sentikorra dela esaten zaigu. Zertan oinarritzen da autorea hori esateko?
  - d. Ainhoa ez dago lasai erizain eta medikuen artean. Zergatik? Nork kantatzen dizkio sehaska kantak ospitalean?
  - e. Testu hau giza eskubideen aldekoa omen da. Zein eskubideren aldekoa zehazki?
3. Testuan ageri diren esaldi hauek beste modu batera eman itzazu. Horretarako, parentesi artean erakusten zaizun bidea erabili behar duzu azpimarraturik dagoena beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute: (1 p.)
  - a. *Ainhoak ospitaleko gau luzeetan ez du sehaska kanta ezagun bat kantatuko dionik.* (**inor**)
  - b. *Ainhoak, egarrizten denean, ez dauka baso bat ur behar duela ulertuko dionik.* (**ba-**)
  - c. *Ez da onargarria euskaraz ederki dakien haur bat atzerritar sentiaraztea.* (**ezin**)

#### B. Idazlana. (5 p.)

Bi aukera hauen artean hauta ezazu gustukoena duzuna:

- a) Idatz ezazu, hamabost bat lerrotan, honako gai honi buruz: **Hiztunaren hizkuntza eskubideak**. Aipa dezakezu esku-bide horiek zer diren; gure artean zein neurritan errespetatzen diren; zer egin beharko litzatekeen hizkuntzagatik inor ez diskriminatzeke; alor honetan aurrera edo atzera goazen; eta abar.
- b) Pentsa ezazu Ainhoaren aita edo ama zarela. Egiotzu gutun bat Arartekoari (15-20 lerrokoa) testuan aipatzen den arazoa azalduz.

## Selektibitatea 1999

### Euskara eta Literatura (Azterketa / 2)

XVII. eta XVIII. mendeetan euskal arrantzaleek euskal kostaldeetako ikur<sup>1</sup> bihurtu den trainerua erabiltzen zuten. Trainerua sardinak eta antxoak harrapatzeko erabiltzen zuten. Arinagoak ziren, biratzeko erraztasuna zuten eta errazago zen arrainak inguratzea.

Behin arrainez beteta, arrantzaleak ziztu bizian itzultzen ziren portura. Lehenengo itzultzen zirenek lortzen zuten preziorik onena. Gaur, gure kostaldean sona handia lortu duten estropadak horrela hasi omen ziren. Beste lan askorekin gertatu zen bezala, hasieran lanbide zena gero kirol bihurtu zen, eta trainerua desagertu egin zen lanerako.

Aurten, ordea, garai hura gogoratzeko aukera izango da, Basques d'Amérique Ameriketako euskaldunak biltzen dituen elkarteak bultzatu duen proiektuari esker. Xabier Agote itsas historialari donostiarrak 1750. urteko Hondarribiko traineru bat egitea proposatu zion elkarteari, garai hartako ohiturak gogoratu eta euskal arrantzaleei omenaldia egiteko asmoarekin. Xabier Agoteren ustez, itsasontzi historikoak zeharo ahaztuta daude, eta egoera hori aldatu egin behar da, Euskal Herriko itsas historiaren nortasuna berreskuratzeko.

Elkarteak baiezkoa eman zuen, eta gaur Ameriketako Trainerua izena hartu duen txalupa egiten ari dira mundu osotik bildutako ikasleak EEBB-etako Maine estatuan. Traineruaren finantzaketa euskal diasporak egingo du nagusiki, baina Jauraritzaren babesa ere badu. Ameriketako euskaldunek Euskal Herriari egindako oparia izango da trainerua.

Iazko urrian hasi ziren trainerua egiten, aurtengo maiatzean bukatzeko. Trainerua bukatu bezain laster New Yorkeko Manhattan uhartetik Askatasunaren Estatuara egingo du lehenengo ibilaldia. Ondoren, hiriko Southport-etik Bilboko norabidea hartuko du. Bilbon harrera ofiziala Guggenheim museoan eta hiriko Museo Etnografikoan egingo diote traineruari, ekainaren bukaeran. Bilbotik euskal kostaldea zeharkatzen hasiko da trainerua. Herri bakoitzak hamabi laguneko arraunlari taldea jarriko du. Talde hauek etapaz etapa txandakatuko<sup>2</sup> dira. Kostaldeko hogeita zortzi herri bisitatu ondoren, trainerua Baionara iritsiko da abuztuaren 21ean. Han amaiera ekitaldia egingo dute. Traineruaren ibilaldian zehar, kirol eta kultur ekitaldi ugari izango dira. Traineruaren ibilaldi hau dela-eta euskal sustraiak dituzten amerikar asko hurbilduko dira euskal kostaldera.

Traineruaren bidez omenaldia egingo zaie Bilbo eta Baiona arteko arrantzaleei, itsasoak eta mundua ezagutarazteko egin duten lanagatik.

---

1 ikur: sinbolo

2 txandakatu: txandaka aldatuz joan

---

#### A. Ulermena.

1. Egin ezazu testu honen laburpena eta azal ezazu zein den gai nagusia. (2 p.)
2. Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - a. Zer da *Ameriketako Trainerua*? Non ari dira egiten? Nori bururatu zitzaion ideia?
  - b. Zein izango da traineruak Euskal Herrian egingo duen ibilaldia?
  - c. Trainerua egiteak sortuko dituen gastuak nork ordainduko ditu?
  - d. Gaur ezagutzen ditugun estropadak nola sortu ziren?
  - e. Nori egin nahi zaio omenaldia traineru honekin? Zer dela eta?
3. Testuan ageri diren hitz hauen esanahia azal ezazu zeure hitzak erabiliz. Ondoren, egin ezazu bakoitzarekin esaldi bat. (1 p.)
  - a) *ziztu bizian*
  - b) *berreskuratu*
  - c) *ezagutarazi*
  - d) *historialari*.

#### B. Idazmena. (5 p.)

Bi aukera hauen artean hauta ezazu gustukoena duzuna:

- a) Idatz ezazu, hamabost bat lerrotan, **proiektu honi buruzko iruzkin edo komentario bat**. Aipa ditzakezu Amerika eta Europako euskaldunen arteko harremanak; proiektua aurrera ateratzeko egin behar den talde lana; arrantza teknikan gertatu den aurrerapena; lanaren eta kirolaren arteko erlazioa, eta abar.
- b) Konta ezazu (15 lerrotan-edo) nolakoak ziren garai bateko itsasoko ibilaldiak eta nolakoak diren gaur. Komunikabide desberdinen alde onak eta ez hain onak.

## Selektibitatea 2000 Euskara eta Literatura (Azterketa / 1)

Elizetan entzuten direnean hunkitu, poztu, tristetu eta batzuetan beldurtu egiten gaituzte. Normalean elizaren atzeko aldean egoten direnez, jendearentzat guztiz ezezagunak izaten dira.

Baina ezezagunak badira ere, Euskal Herriko organoen maila mundu osoko onenetakoa da. Esteban Elizondo organo-jole ezagunaren ustez, gurean dugun organo ondarea<sup>1</sup> benetan ikusgarria da. Gipuzkoa da kalitatezko organo gehien dituen lurraldea.

Organo erromantikoen esparruan<sup>2</sup> altxor<sup>3</sup> bikaina du Gipuzkoak. Frantziako Cavaillé-Coll etxeak egin zituen 1811 eta 1899 bitartean organo erromantiko ederrenak. Berehala ekarri zituzten Euskal Herrira lehenengo Cavaillé-Coll organoak. Lehenengoa Lekeitioko elizan jarri zen 1856an. Euskal Herrian hogeita lau organo egin zituen Frantziako etxeak, baina enpresako ordezkari<sup>4</sup> izandako apaiz baten bidez, Gipuzkoa bihurtu zen Cavaillé-Coll organo gehien zituen lurraldea. Gaur egun, Gipuzkoan hamalau Cavaillé-Coll daude. Horietatik hiru dira garrantzitsuenak: Donostiako Santa Mariakoa, Azkoitiko Santa Mariakoa eta Loiolako basilikakoa. Hiru horiek munduko organo erromantikoen artean onenetakoa dira. Cavaillé-Coll organo ugari egin ziren garai hartan Frantzian eta Euskal Herrian. Frantzian, urte batzuk geroago, modak zirela-eta etxe horretako organo gehienak eraberritu<sup>5</sup> egin zituzten garai berrietako gustuen arabera. Oso organo gutxi geratu ziren Frantzian erreforma horiek egin gabe. Euskal Herrian, aldiz, ez ziren ukitu. Urteak pasatu ahala, musika erromantikoa jotzeko garaian garaiko instrumentuen garbitasuna bilatu nahi izan da, eta hori gure inguruan dauden organoetan aurkitu dute garbizaleek. Horregatik, gaur egun, organo musika erromantikoa grabatu nahi duten musikari europarrek Azkoitiko edo Donostiako Santa Maria elizetako organoetan egiten dituzte beren grabazioak.

Gure herrian ere organoak egiteko tradizio handia izan da mendeetan zehar. Organo erromantikoen garaietatik dator euskal organogileen fama. XIX. mendean Aquilino Amezua azpeitiarra izan zen Espainiako organogilerik famatuena. Berak egin zuen Berako organoa, Nafarroako organo erromantikorik garrantzitsuenak.

Garai hartatik aurrera, eta organoek hartu zuten garrantzia ikusita, enpresa gehiago sortu ziren. 1912an Amezua y Compañía desagertzean, bi enpresa sortu ziren: alde batetik, Azpeitiko Eleizgarai y Compañía; eta, bestetik, Amezua y Compañía, Hernanin. Bi etxe hauetako langileak aurretik Amezuarekin lan egindakoak ziren. Etxe hauek oraindik lanean segitzen dute eta inguruko organoetan konponketak egiten dituzte. Nafarroan, Murtxanten, bi gaztek osatu zuten enpresa bat martxan dago, eta haien azken lana Donostiako Jesuiten elizako organoa konpontzea izan da. Estatu espainiarrean, Gaztelan eta Katalunian daude organogilerik onenak gaur egun. Gazteen artean zaila da organogileak sortzea. Normalean familiako enpresak izaten dira, eta lanbidea gurasoengandik seme-alabengana transmititzen da.

- 
- 1 ondare: arbasoengandik jasotzen diren ondasunen multzoa  
1 esparru: eremu mugatu eta itxia, alorra  
3 altxor: balio handiko gauzen bilduma, gehienetan ezkutuan egoten dena

- 4 ordezkari: talde, erakunde edo pertsona baten ordezkari edo izenean ageri dena  
5 eraberritu: berritu, berriztatu
- 

### A. Ulermena.

- Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - Nolakoa da Euskal Herrian dugun organo ondarea?
  - Cavaillé-Coll organorik ba al da Euskal Herrian? Non daude gehienak? Zenbat?
  - Zergatik etortzen dira Euskal Herrira Europako organo-joleak beren grabazioak egitera?
  - Gaur egun non daude organogile onenak?
  - Gazten artean organogile ugari al da?
- Egin ezazu testu horren laburpena eta azal ezazu zein den gai nagusia. (2 p.)
- Testuan ageri diren esaldi hauek beste modu batera eman itzazu. Horretarako, parentesi artean erakusten zaizun bidea erabili behar duzu azpimarraturik dagoena beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute: (1 p.)
  - Baina ezezagunak badira ere, Euskal Herriko organoen maila mundu osoko onenetakoa da. (arren)*
  - 1912 Amezua y Compañía desagertzean, bi enpresa sortu ziren. (desagertu)*
  - Enpresaren ordezkari izandako apaiz baten bidez, Gipuzkoa bihurtu zen Cavaillé-Coll organo gehien zituen lurraldea. (izan zen)*

### B. Idazlana. (5 p.)

Testu honetan musika tresna berezi bati buruzko kontuak aipatu dira. Idatz ezazu, 20 lerrotan, musikari buruz duzun iritzia: musikak gure bizitzan duen lekua; musika desberdinak; atsegin dituzun eta gorrotatzen dituzun musika motak; eta abar.

## Selektibitatea 2000 Euskara eta Literatura (Azterketa / 2)

Gehiegizko arrantzaren arazoa arazo orokorra da gaur egun, bai Euskal Herrian, baita mundu osoan ere. FAOren kalkuluen arabera, munduko arrain baliabideen<sup>1</sup> %60-70 neurritz gain ari dira ustiatzen<sup>2</sup>. Era berean, harrapatzen den %25 baztertu egiten da eta itsasora botatzen dute atzera. Arazo hori harrapaturiko arrainen tamaina desegokia delako, edo harrapatu nahi diren arrainekin batera nahi ez diren beste espezie batzuk ere harrapatzen direlako gertatzen da. Arazoaz ongi jabetzeko<sup>3</sup>, nahikoa da pentsatzea horrek zer esan nahi duen: Espainiako flotak urtero gutxi gorabehera 250.000 tona itsas espezie botatzen ditu atzera itsasora. Badago beste arazo bat ere: merkatuak arrain espezie gutxi batzuei bakarrik ematen die benetan garrantzia. Espezie askok, batez ere beren zaporeagatik edo koipetsuegiak direlako, oso balio gutxi dute merkatuan eta oso modu mugatuan baliatzen dira. Hau da, adibidez, arrain urdinaren kasua.

Beraz, beharrezkoa da neurriak hartzea arrantza baliabideak modu eramangarrian<sup>4</sup> erabiltzeko, eta arrantza arrazoizkoa izateko. Adibidez, bazterkinak<sup>5</sup> eta gutxiegi erabiltzen diren espezieak hobeto erabili behar dira eta ematen zaiena baino balio handiagoa eman behar zaie. Horretarako erabiltzen diren azken teknologien artean produktu berregituratuak aipa daitezke. Horietako bat da surimia eta honen eratorriak<sup>6</sup>.

Produktu berregituratu<sup>7</sup> bitartez, harrapaturiko arrainen xerrak edo zatiak itsatsi<sup>8</sup> eta molde batean sartzen dira. Horrela, teknika hori erabiliz, imitaziozko xerra<sup>9</sup> bat osatzen da.

Surimia edo honen eratorriak egiteko, berriz, zatikatua izan den arrain muskulua (surimia) berriro batzen da eta imitatu nahi den produktuaren itxura eta ezaugarriak ematen zaizkio. Teknika honen alde onak asko dira: batere balio komertzialik ez duen arraina aprobetxatzen da eta imitatzen duen produktuaren ezaugarri berdinak lortzen dira teknika horien bidez. Horrela, produktuaren merkatu iraupena luzatzea lortzen da. Bestalde, produktu berriak lortzeko aukera paregabea eskaintzen dute teknika hauek.

Esandakoa esanda, eta gaur egungo arrantza gehiegizkoa dela ikusita, beharrezkoa da balio gehiago ematea bazterkinei eta gutxiegi erabilitako espeziei. Arrantza ez agortzeko<sup>10</sup>, arrazoizkoa izateko, beharrezkoa da aipatutako neurriak kontuan hartzea. Guztion mesederako izango da.

---

1 baliabide: zerbait lortzeko erabil daitezkeen tresnak, ondasunak, bitartekoak	6 eratorri: zerbait beste zerbaitetik erakarri, deribatu
2 ustiatu: zerbaitetik, landuz, onura edo mozkin atera	7 berregituratu: zerbaiti egitura berria eman, berriz egituratu
3 jabetu: zerbaiten jabe egin, konturatu, ohartu	8 itsatsi: gauza bat beste bati irmoki lotu
4 eramangarri: eramane edo aguantan daitekeena	9 xerra: zati mehea
5 bazterkin: bazterrean uzten dena, onartzen ez dena	10 agortu: ahitu, amaitu

---

### A. Ulermena.

- Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - FAOren arabera, zenbatekoa da neurritz kanpoko arrantza?
  - Harrapatzen diren arrain guztiak baliatzen dira?
  - Arrantza arrazoizkoa izateko, zer neurri proposatzen dira?
  - Zer da surimia?
  - Zergatik da beharrezkoa bazterkinak hobeto aprobetxatzea?
- Egin ezazu testu honen laburpena eta azal ezazu zein den gai nagusia. (2 p.)
- Testuan ageri diren esaldi hauek beste modu batera eman itzazu. Horretarako, parentesi artean erakusten zaizun bidea erabili behar duzu azpimarraturik dagoena beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute: (1 p.)
  - Beharrezkoa da neurriak hartzea. (hartu behar)*
  - Produktu berriak lortzeko aukera eskaintzen dute teknika hauek. (teknika hauen bidez)*
  - Arrantza ez agortzeko beharrezkoa da neurriak hartzea. (agor)*

### B. Idazlana. (5 p.)

Naturak eskaintzen dizkigun baliabideak ez dira mugagabeak. Hala ere, badirudi gizakiok askotan ez dugula hori kontuan hartzen: zabor gehiegi sortzen dugu, natura ez dugu errespetatzen... Eman ezazu, hoguei lerrotan, gai honi buruz duzun iritzia.

## Selektibitatea 2001

### Euskara eta Literatura (Azterketa / EKAINA)

Estatu Batuetan, Kaliforniako Unibertsitatean, mediku talde batek terapia geniko aurreratu bat saiatu berri du Alzheimerren gaitzari aurre egiteko. Gaixotasunari jotako emakume bati garunean genetikoki eraldatutako<sup>1</sup> zelulak ezarri dizkiote. Era horretan, gaitzaren sintomak arintzea espero dute.

Emakumeari aurrena<sup>2</sup> azaletik zelulak hartu zizkioten, eta gero genetikoki eraldatu zituzten. Zelula horiei, garuneko<sup>3</sup> zelulak bizitzeko eta hazteko behar duten gene bat ezarri zieten. Gero, eraldatutako geneak emakumearen garunean ezarri zituzten.

Horrela, gaitza sendatzea ez da lortuko. «Ez dugu esperantza faltsurik zabaldu nahi» –esan dute sendagileek. Alzheimerren gaitzaren berezko ondorio larria neuronen heriotza da. Hori geratzea da helburu nagusia: “Garuneko zelulen heriotza moteldu daitekeela frogatu nahi dugu”, azaldu dute Kaliforniako Unibertsitateko neurologoek.

Oraindik ez dago argi zer-nolako emaitza<sup>4</sup> izango duen ebakuntzak<sup>5</sup>. Itxaropentsu azaldu dira zenbait aditu. Dena ondo badoa, urrats handia izango da, bai Alzheimerren gaitzari aurre egiteko, bai Parkinsonenaren sintomak arintzeko ere. Garuneko zelulak suntsitzen<sup>6</sup> dituen edozein gaitzi aurre egiteko egokia izan daiteke. Hala uste du, esaterako, Zaven Khachaturian Estatu Batuetako Alzheimer Elkarteko mediku adituak.

Beste zenbait aditu, ordea, kezkatu azaldu dira. Izan ere, ez dago argi garunean ezarritako zelulek nolako bilakaera<sup>7</sup> izango duten. Gainera, zelula horiek garunean handitzen hasten badira ondorio txarrak izan daitezke. Hazkundearen<sup>8</sup> inguruko kontuak oso indartsuak eta konplexuak izaten dira. Horregatik, oso kontuz ibili behar dela diote.

Genetikoki eraldatutako zelulak garuneko zati jakin batean ezarri dira. Oroimenarekin eta ikasketa prozesuekin erlazio-naturik dagoen zatian, hain zuzen. Funtzio horien galera moteldu egingo dela espero dute sendagileek. Baina gertutik<sup>9</sup> jarraitu beharko dute haren bilakaera ondorioak ateratzeko.

Genetika gaitz guztiak sendatuko dituen giltza dela uste dute askok. Ehunka ikerketa talde eta erakunde ari dira horretan. Gaixotasunak sortzen dituzten geneak aurkitu, eraldatu eta saldu egiten dituzte. Orain Kaliforniako Unibertsitatean saiatu duten ebakuntzaren atzean, esaterako, Cell Genesys konpainia dago, Estatu Batuetako konpainia handia. Geneen eraldaketaren bidez gaitz askori aurre egiteko bideak ikertzen ari dira. Hainbat minbizi, hemofilia, bihotzeko gaitzak, garuneko gaitzak... beren ikerketei esker sendatu ahal izango direla diote. Beste hainbat adituk, ordea, diote gurtia ez dela genetika.

---

1	erlaldatu: aldatu, aldaketaren bat egin
2	aurrena: lehenbizi
3	garun: burmuina
4	emaitza: fruitua, ondorioa
5	ebakuntza: operazioa

---

6	suntsitu: desegin
7	bilakaera: eboluzioa, aurrerabidea
8	hazkunde: haztea, handitzea
9	gertutik: hurbiletik

---

#### A. Ulermena.

- Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - Zer terapia saiatu dute Kalifornian?
  - Zer lortu nahi dute medikuek ebakuntza honekin?
  - Adituak bat al datoz horrelako ebakuntzen ondorioei buruz?
  - Zergatik daude kezkatu zenbait aditu?
  - Garuneko zein partetan ezarri dizkiote emakumeari genetikoki eraldatutako zelula horiek?
- Azal ezazu zein den testu honen gaia. Egin laburpen bat. (2 p.)
- Testuan ageri diren esaldi hauek beste modu batera eman itzazu. Horretarako, parentesi artean erakusten zaizun bidea erabili behar duzu azpimarraturik dagoena beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute: (1 p.)
  - “*Ez dugu esperantza faltsurik zabaldu nahi*” –esan dute sendagileek. (-**ela**)
  - Dena ondo badoa, urrats handia izango da.* (**gero**)
  - Ez dago argi garunean ezarritako zelulek nolako bilakaera izango duten.* (**zein izango den**)

#### B. Idazlana. (5 p.)

Azal ezazu, hogeitaz lehen, genetika kontu haiei buruz duzun iritzia: bidezko iruditzen zaizkizun; gehiegikeria ote diren; onerako ala txarrerako izango ote diren; dituzten arriskuak; kontrolaren beharra, eta abar azalduz.

## Selektibitatea 2001

### Euskara eta Literatura (Azterketa / UZTAILA)

Azken urte hauetan geroz eta gehiago dira itsasoan lan egiteko asmoz Ondarroara datozen etorkinak. Horien modura etorri zen Massa Thior senegaldarra joan den hamarkadan. Familiarekin hartu-eman zuzena edukitzeak daukan garrantziaz oharturik, telefono mintzalekua ipini berri du kostaldeko herrian.

Itsas gizona izan da Thior luzaro. Kanariar Uhartean egin zuen lan hamar urtez. Handik Santurtzira jo zuen eta, azkenik, Ondarroara. Orain lanbidea aldatzea erabaki du.

Martxan du joan den ostiraletik telefono mintzalekua, eta berdin batzen dira hainbat eta hainbat lagun. «Itsasoan lan egiten duten etorkin gehienek familia Afrikan utzi dute. Eurekin kontaktuan jartzeko nazioarteko telefono mintzalekuak behar dira, eta hemen askoz gutxiago balio du deiak», argitu du Thiorrek. Orain arte Bilbora jo behar izaten zuten senideei deitu eta dirua bidaltzeko gestioak egitera. «Arrantzako lanak ez du horrenbeste asti librerik uzten hara joan-etorrian ibiltzeko. Horregatik bururatu zitzaidan Ondarroan mintzalekuak ipini eta Lea-Artibaiko zerbitzua eskaintzea».

Senegaldarrak dira nagusi etorkinen artean. Ondarroan bertan ehun eta hogeita bost lagun daude herri hartakoak. Horiakin batera, Maroko, Hego Amerika, Mauritania, Sierra Leona. Gana eta beste hainbat lekutakoek bizitoki eta lantoki berria dute Bizkaiko herrian. Bere errolda partikularra ere badu Thiorrek. «Nik neuk berrehun eta hogeit hamar pertsona ditut zenbatuta, Ondarroa eta Mutriku artean», azaldu du.

Etorkinen errealitatea gertutik ezagutzen du. «Normalean hogeit hamar urterekin ezkondu egiten dira, eta hogeita hamar urte betetzerako bospasei ume dituzte; emaztea eta haurrak han utzita etortzen dira hona, lan egitera».

Bilboraino joan beharrik ez daukatenez, bertan ematen dituzte askok ordu hilak. «Lehen atsedean egunak heldu arte egon behar izaten zuten familiarekin hitz egiteko. Orain, ordea, ordu pare bat badaukate, hona etortzen dira». Horren ondorioz, beste funtzio bat ere betetzen omen du mintzalekuak: «Laneko orduetatik kanpo, norberaren lagunekin batu eta berekin hitz egiteko lekua ere badira mintzalekuak», gaineratu du Thiorrek.

---

#### A. Ulermena.

1. Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - a. Zer dela-eta bururatu zaio Thiorri mintzalekua ipintzea?
  - b. Nongoak dira Ondarroako etorkin gehienak?
  - c. Zertarako erabiltzen dute mintzalekua?
  - d. Noiz iritsi zen Thior Ondarroara?
  - e. Thiorren arabera, nolakoa da etorkinek Afrikan utzitako familia?
2. Azal ezazu zein den testu honen gaia. Egin laburpen bat. (2 p.)
3. Testuan ageri diren azpimarratutako esaldi hauek beste modu batera eman itzazu. Horretarako, parentesi artean erakusten zaizun bidea erabili behar duzu azpimarraturik dagoena beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute: (1 p.)
  - a. «*Nik neuk berrehun eta hogeit hamar pertsona ditut zenbatuta, Ondarroa eta Mutriku artean*», azaldu du. (-**ela**)
  - b. *Arrantzako lanak ez du asti librerik uzten joan-etorrian ibiltzeko. Horregatik bururatu zitzaidan Ondarroan mintzalekuak ipintzea.* (-**enez**)
  - c. *Familiarekin hartu-eman zuzena edukitzeak daukan garrantziaz oharturik, telefono mintzalekua ipini berri du kostaldeko herrian.* (**nolako**)

#### B. Idazlana. (5 p.)

Azal ezazu, hogeit hamar lerrotan, etorkinei buruz duzun iritzia: herrialde pobreak eta aberatsak; giza eskubideak eta abar aipa ditzakezu.

## Selektibitatea 2002

### Euskara eta Literatura (Azterketa / EKAINA)

Nekatuta baina pozarren iritsi dira Alberto Iñurrategi eta bere taldekideak Euskal Herrira. Oinak Izarretan espedizioko kideak arratsaldeko 16:00etan iritsi ziren Loiuko aireportura, espero baino bi ordu beranduago. Izan ere, hasieran hartu behar zuten hegaldian lekurik gabe geratu ziren.

Oso nekatuta baina pozik agertu ziren espedizioko lau kideak, Alberto Iñurrategi, Jon Beloki, Jon Lazkano eta Juanjo San Sebastian, Iurretan, ETBko egoitzan eman zuten prentsurrekoan. Iñurrategik hitza hartu eta azaldu zuen Annapurnara, bere hamalagarren zortzimilakora igotzeko, nahitaezkoa dela “zoroaldi txiki bat” izatea. «Espero baino askoz zailagoa izan da igoera. Horregatik, zailak izan nituen arrakastarik izango ote genuen, eta indarrek lagunduko ote ziguten».

Annapurnako (8.091 metro) Ekialdeko ertzean sartuta, ezusteko handia hartu zutela aitortu zuen Alberto Iñurrategik, bidea elurrik gabe zegoelako. «Horrek izugarri zaildu<sup>1</sup> zuen gure lana, ohikoa ez den beste bide batetik egin behar izan baikenuen gorantz». Hainbeste zailtasun ikusita, bitan edo hirutan gailurrera helduko ez zirela ere pentsatu zuten. Une kritiko horietan alboan Jean Christophe Lafaille izatea erabakigarria izan zen Iñurrategirentzat, «teknikoki ni baino zailduago<sup>2</sup> baitago». Mendizale euskaldunak Annapurnako Ekialdeko ertza Errusiako mendizaleentzat egokiagoa dela esan zuen, erdi txantxatan, «gu baino bizimodu gogorragora ohituago baitaude».

Hamalau zortzimilakoak osatzeagatik pozik mintzatu zen, eta ez zen batere larritu aurrerantzean zer egingo duten galdetu ziotenean: «Bilatuko ditugu erronka berriak. Mendiak milaka daude eta ez aspertzeko moduko irteerak beste hainbeste».

Prentsurrekoa bukatuta, Alberto Iñurrategik eta espediziokoek aretxabaletarren omenaldi beroa jaso zuten Aretxabaletako udalean. Igotako zortzimilako gailur guztiak gogoratu zizkieten hamalau dantzarik mendigoizaleei. Felix Iñurrategi zena ere gogoratu zuten Aretxabaletako plazan bildutako ehunka herritarrek.

---

1 zaildu<sup>1</sup>: zail egin, zail bihurtu

2 zaildu<sup>2</sup>: gogortua, gauza edo lan gogorretarako ohitua

---

#### A. Ulermena.

1. Erantzun galdera hauei: (5 puntu)
  - a. Zergatik esan zuen Iñurrategik Annapurnako ekialdeko bidea errusiarrentzat egokiagoa zela?
  - b. Iñurrategik zortzi mila metrotik gorako zenbat mendi egin ditu? Zein izan da azkena?
  - c. Zergatik egin zitzairen uste baino zailago gailurrera iristea?
  - d. Hemendik aurrera zer asmo dute mendizale hauek?
  - e. Mendizaleek non eskaini zuten prentsurrekoa?

#### B. Idazlana. (5 p.)

Kirolak gero eta garrantzi handiagoa du gure gizartean. Kirola ikuskizuna da; diru iturri ere bada; kirolak badu osasunarekin ere zerikusia; drogak ere tartean dabilta zenbaitetan... Azal ezazu, hogeit hamarretan, nola ikusten duzun kontu hau. Kirolak zure bizitzan duen lekua ere aipa dezakezu.

## Selektibitatea 2002

### Euskara eta Literatura (Azterketa / UZTAILA)

«Bizi-itxaropena mugara iristen ari al da?» Galdera honekin hasten dute Jim Oeppen eta James W. Vaupel ikertzaileek duela aste batzuk *Science* aldizkarian argitaratu duten demografiari buruzko artikulua. Beren ondorioak honela laburbiltzen dituzte: «Askok hala uste dute, baina datuek besterik erakusten dute». James W. Oeppenek Populazioaren historia irakasten du Cambridgeko Unibertsitatean; James Vaupel, berriz, Max Planck Demografia Institutuko kidea da.

Hona hemen lehen datua: bizi-itxaropena urteko hiru hilabete igo da azken 160 urteetan, bizi-itxaropen handiena duten herrialdeetan. 1840an Suediako emakumeek 45 urteko bizi-itxaropena zuten; egun, aldiz, Japoniako emakumeena –berau da handiena– 85 urtekoa da. Munduko bizi-itxaropenaren batez bestekoa, berriz, bikoiztu<sup>1</sup> egin da azken bi mendeetan: 25 urte eskasetatik gizonetan 65 eta emakumeetan 70 urtera pasatu da.

«Bizi-itxaropenaren gorakada izugarria lineala izan da azken 16 hamarkadetan, bai emakumeetan, baita gizonetan ere», diote harriritu Oeppenek eta Vaupelek. «Badirudi bizi-itxaropena ez dela ari mugara hurbiltzen. Muga egongo da», dio Oeppenek «baina ez dakigu non dagoen. Oraindik ez gara iritsi. Mugatik gertu<sup>2</sup> egongo bagina, Japoniako emakumeen bizi-itxaropena oso motel hasiko litzateke, baina ez da hori gertatzen».

Oeppen eta Vaupelek aurreikusten dutenez, joera hori etengabekoa<sup>3</sup> da eta, egonkorra denez gero, logikoa litzateke horrela segitzea, hau da, bizi-itxaropena bi urte eta erdi inguru igotzea hamarkada bakoitzean.

Hala ere, betikotasunetik urrun gaudela aitortzen dute. Bizi-itxaropenaren urteroko gorakada apalak ez dira inoiz iritsiko hilezkortasunera<sup>4</sup>. Ehun urte betetzea, ordea, arrunta izango dela diote.

Oeppen eta Vaudelek diotenez, bizi-itxaropenak mugak dituela sinesteak agintarien erabakietan badu eragina, bizi-itxaropenaren aurreikuspenak erabiltzen baitira etorkizuneko pentsioak, osasun laguntzak eta hainbat behar sozial aurreikusteko. Bizi-itxaropenaren urte batzuetako hazkundeak<sup>5</sup> sekulako aldaketak eragiten ditu pertsona zaharren eta oso zaharren kopuruan, etorkizuneko beharrak izugarri handituz. Gaur egungo joerak jarraituz gero, Ameriketako Estatu Batuetako emakumeen bizi-itxaropena 92,5 eta 100,5 urteren artean egongo da 2070ean, Gizarte Segurantzak aurreikositako 83,9 urteak baino dezente gehiago.

---

1 bikoiztu: bi aldiz handiago egin	4 hilezkor: ezin hil daitekeena. Hilezkortasun: hilezkor denaren nolakotasuna
2 gertu: hurbil	5 hazkunde: haztea, handitzea
3 etengabeko: etenik ez duena, jarraitua dena	

---

#### A. Ulermena.

- Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - Zein da Oeppen eta Vaupelen artikulua gaia?
  - Hilezkortasunera iritsiko al gara inoiz?
  - Nolako eragina du agintarien erabakietan bizi-itxaropenaren gorakadak?
  - Non dute bizi-itxaropen handiena, Japonian ala Estatu Batuetan?
  - Estatu Batuetako Gizarte Segurantzak nolako bizi-itxaropena dauka aurreikusita?
- Azal ezazu zein den testu honen gaia. Egin laburpen bat. (2 p.)
- Eman itzazu beste modu batean testuan ageri diren azpimarratutako esaldi horiek. Horretarako, parentesi artean ematen zaizun hitza (forma horretantxe) erabili behar duzu, esaldia beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute (1 p.).
  - «*Bizi-itxaropena mugara iristen ari al da?*» Galdera honekin hasten dute Jim Oeppen eta James W. Vaupel ikertzaileek beren artikulua (**den**)
  - Badirudi bizi-itxaropena ez dela ari mugara hurbiltzen.* (**dirudienez**)
  - Gaur egungo joerak jarraituz gero, Ameriketako Estatu Batuetako emakumeen itxaropena 92,5 eta 100,5 urteren artean egongo da 2070ean.* (**ba...**)

#### B. Idazlana. (5 p.)

Azal ezazu, hoguei lerrotan, bizi-itxaropenean gertatzen ari den aldaketez duzun iritzia: nora goazen, gizartean gertatzen diren aldaketak (zaharrak gero eta ugariago, esaterako), pentsioen arazoa; hirugarren munduan eta lehen munduan gauzak nola diren, eta abar.

**Selektibitatea 2003**  
**Euskara eta Literatura (Azterketa / EKAINA)**

Jose Antonio Arana bisita egitera joan omen zitzaion behin Plazido Mujikari Loiolako santutegira. Mujikak ez zuen artean bukatua bere hiztegia. Eta lan horretan ari zen, zapata kaxetan gordeaz eta bilduak zituen milaka fitzak gobernatu nahian. Baina Aranak kezkatu aurkitu omen zuen orduan Mujika. Kexu zen, beldur zen ez ote zen zahartzen ari, ez ote zen gauza izango lana bukatzeko. Itsutzen ari zen.

Gelatik atera eta paseatu egin zuten luzaroan Loiolako baratzean zehar. Honetaz eta hartaz aritu ziren, haurtzaroko paisaiei buruz, egindako bidaiez eta abar. Ekuadorrera eginiko bidaiaz ere aritu zen Mujika. Chimborazo sumendia omen zen munduko garaiena, ez Everest. Everest itsas mailaren arabera omen dago neurtua. Baina munduaren erdigunetik neurtuz gero, Chimborazo izango omen litzateke garaiena. Halako batean, betaurrekoak kentzeko eskatu omen zion Aranak. Lausotuak zituela konturatu zen, eta zapi batekin garbitzen zizkion bitartean, oinez jarraitu zuten beren ibilaldia. Betaurrekoak bueltatu zizkionean oiheri batean hasi omen zen Mujika: «Miraria, miraria!» esaten omen zuen, sinistu ezinik. Nonbait, ez zen ordura arte konturatu bere ustezko itsutze hura betaurreko zikinei zor zitzaizela. Kristal zikinek zuten errua, ez zen ikusmena galtzen ari.

«Azeriak<sup>1</sup> gauza asko daki; trikuak<sup>2</sup>, berriz, bat bakarra baina inportantea», esan zuen Arkilokok. Mujika, zalantzarik gabe, trikuaren modukoa zen. Halako jakituria zuen gizonari, halako lan eskerge<sup>3</sup> egiten ari zen fraideari ahaztu egin zitzaion betaurrekoak garbitzea bezalako ekintza soila. Maite ditut gisa horretako nahasteak. Maite ditut gisa horretako pertsonak. Bazekien gauza bat, bakarra eta inportantea, eta sinistu egiten zuen horretan. Kirikinoak bezala.

---

1 azeria: zakurraren familiako ugaztun haragijalea, buru-zabala eta mutur-zorrotza

2 trikuak: kirikinoa, ugaztun intsektujalea, azala arantzas betea duena

3 eskerge: zaila, gaitza

---

**A. Ulermena.**

1. Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - a. Zertara joan zen Jose Antonio Arana Loiolara?
  - b. Zein zen Plazido Mujikaren bizibidea?
  - c. Itsutu egin al zen azkenerako?
  - d. Zertaz hitz egin zuten Aranak eta Mujikak beren ibilaldian?
  - e. Zein da munduko mendirik garaiena, Mujikaren ustez? Zertan oinarritzen da hori baieztatzeko?
  
2. Azal ezazu zein den testu honen gaia. Egin laburpen bat. (2 p.)
  
3. Eman itzazu beste modu batean testuan ageri diren azpimarratutako esaldi horiek. Horretarako, parentesi artean ematen zaizun hitza (forma horretantxe) erabili behar duzu, esaldia beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute. (1 p.)
  - a. «*Azeriak gauza asko daki; trikuak, berriz, bat bakarra*», esan zuen Arkilokok. (*-ela*)
  - b. *Munduaren erdigunetik neurtuz gero, Chimborazo izango omen litzateke garaiena.* (*ba-*)
  - c. *Beldur zen ez ote zen zahartzen ari, ez ote zen gauza izango lana bukatzeko.* (*ezin*)

**B. Idazlana. (5 p.)**

Trikua eta azeria aipatzen dira testuan. Komenta ezazu, hogei lerrotan, hor ezkututzen den ideia. Ados al zaude gizakien sailkapen horrekin? Ezagutzen al dituzu mota bateko eta besteko pertsonak? Mota bateko eta besteko pertsonen alde onak eta txarrak aipa ditzakezu...

## Selektibitatea 2003

### Euskara eta Literatura (Azterketa / UZTAILA)

Zazpi orduko martxa “erosoa” egin ondoren, Juanito Oiarzabal eta Juan Vallejo mendizale arabarrak Annapurna gailurrera heldu ziren. Goizeko zortziak eta bi minutuan zapaldu zuten gaina, lehen eguzki printzekin batera. *Al filo de lo imposible* telebista saioko Ferran Latorre kameraria zuten lagun.

Hirugarren kanpamentutik (7.300 metro) abiatu ziren 01:00etan. Eneko Pou kidea bertan geratu zen, ahul baitzegoen. Sorpresarik gabeko igoeraren ondoren, Himalayako mamuak ongi etorria eman zien bere lurretan sartzera ausartu<sup>1</sup> ziren hiru mendizaleei.

Gailurreko haize indartsua eta temperatura hotza (35 gradu zero azpitik) izan dira Arabako espedizioaren azken uneetako oztopoak. Hala ere, kexu izateko arrazoirik ez dute mendizaleek, eguraldia ezin hobea izan baita ia egunero, beroegia zenbait kasutan, beheko kanpamentutik jasotako berrien arabera.

Annapurnan espedizio asko dira atzera egin behar izaten dutenak baina arabarrena, zorionez, bere jomugara<sup>2</sup> iritsi da. Bi astean beheko kanpamentuan girotze<sup>3</sup> fasea burutu ostean, Oiarzabalek Vallejok eta Pouk soka finkoak ipintzen jardun zuten lehen eta bigarren kanpamentuen artean. Tarte horretan gertutik<sup>4</sup> ikusi zituzten Annapurnan hain ohikoak diren elurrolde<sup>5</sup> erraldoiak. Sokak ipintzea amaitu ondoren, beheko kanpamentura itzuli ziren atsedena hartzera. Gailurreko bideari astelehen goizean ekin zioten. Lau egun geroago iritsi ziren 8.091 metroko mendira. Oiarzabalek sari bikoitza nahi zuten Annapurnan: gailurrera iristea eta San Prudentzio egunean izatea, baina azkenean egun bat geroago lortu du helburua.

Gailurrean ohiko argazkiak egin ondoren (“Bai euskarari” kanpainaren aldekoa tartean), hirukotea bigarren kanpamentura (6.600 metro) gauean bertan heldu zen lo egin eta atsedean hartzeko. Oiarzabalek hamalagarrena eta Vallejoren hirugarrena beheko kanpamentuan ospatu zuten. Himalayako mendi zailenetakoak eskainitako harrera onak ez zuten gutxiago merezi.

Hamalau zortzi milakoak igotzea lorpen ikaragarria da. Jende askok igo dituzten mendiak, baita zortzi milakoak ere, baina munduko hamalau gailurrak egitea merezimendu handikoa da. Zortzi mila metroko gailur guztiak igotzeko ideiarekin sortzaile eta helburu horri ekin ziona Austriako Sud Tiroleko Reinhold Messner izan zen. Hamalau gailurrak igo zituen lehenbiziko mendizalea ere bera izan zen. 1986an lortu zuen helburua. Honen ondoren, hamalau tontorrek gainditu dituztenak bi poloniar, suitzar bat eta mexikar bat izan dira. Oiarzabal dugu helburu hori betetzea lortu duen azken mendizalea.

---

1 ausartu: ausardia izan, atrebitu	4 gertutik: hurbiletik
2 jomuga: helburua, norbaitek iritsi behar duen lekua	5 elurrolde: elur jausia
3 girotze: inguruko girora egokitzea, aklimatatzea	

---

#### A. ULERMENA.

- Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - Espedizio honetako zein mendizale iritsi ziren Annapurnaren tontorrera?
  - Eguraldiak oztopo handiak jarri al zizkien mendizaleei?
  - Girotze faseak zenbat denbora iraun zuen?
  - S. Prudentzio egunean iritsi al ziren gailurrera?
  - Zenbat mendizalek egin dituzte hamalau zortzi milakoak?
- GAIA ETA LABURPENA.** Azal ezazu zein den testu honen gaia. Egin laburpen bat. (2 p.)
- Eman itzazu beste modu batean testuan ageri diren azpimarratutako esaldi horiek. Horretarako, parentesi artean ematen zaizun hitza (forma horretantxe) erabili behar duzu, esaldia beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute. (1 p.)
  - Eneko Pou kidea bertan geratu zen, ahul baitzegoen. (–enez)*
  - Himalayako mamuak ongi etorria eman zien bere lurretan sartzera ausartu ziren hiru mendizaleei. (ausardia izan)*
  - Gailurrean ohiko argazkiak egin ondoren hirukotea bigarren kanpamentura heldu zen. (gero)*

#### B. IDAZLANA. (5 p.)

Mendizaletasunaz zer iritzi duzun azal ezazu 15-20 lerrotan. Gustuko duzun ala ez adierazi, beste kirol batzuekin konparatu...

**Selektibitatea 2004**  
**Euskara eta Literatura (Azterketa / EKAINA)**

Tibetarrek *jak* izena eman zioten Claude Marthaler bizikletazale suitzarrari, ile oso luzea zuelako, hautsez beteta zebilelako, eta jak<sup>1</sup> baten gisara mugitzen zelako, kulunkan. Marthalerrek zazpi urte eman zituen munduko bideetan barna, Europatik Asiara, handik Ameriketara, gero Afrikara, eta buelta.

Claude Marthaler 1994ko martxoaren 12an abiatu zen, Suitzatik. Bere lehenengo asmoa Japoniara iristea zen. Bi urte geroago Sobiet Batasuna zenekoan bakarrik bidaiatu zutenen lehen europarretako bat izan zen. Urte hartako negu gorria Kirgiztar Errepublikan barrena eman zuen. Gero, Zetazko Ibilbidea hartu zuen, hegoaldetik, Taklamakandik. Tibeteko goi ordokietatik<sup>2</sup> ibili zen gero eta, zenbaitzuetan, 5.000 metro baino gehiagoko mendateak igaro zituen.

Japoniara iritsi zen, bai, baina ez zuen bidaia bukatutzat eman, eta Alaskara joan zen 1997an. Ozeano Artikoraino ibili zen, eta handik hegoalderantz, AEBetako mendateetatik eta Andeetatik. 1999ko martxoan, Ushuaiara iritsi zen. Baina orduan ere, ez zuen etxerako biderik zuzenena hartu, eta Afrikara joan zen. Hala, Lurmutur Hiritik iparraldera jo zuen. Gerra garaian, Kongo zeharkatu zuen, zailtasun handiz egin ere, eta Saharako basamortua Mauritaniatik igaro zuen. Azkenik, 2001eko ekainean, Suitzara iritsi zen. 122.000 kilometro, 60 herri, lau kontinente, zazpi urte.

Zazpi urteko bidaiari, jendeak gauza asko eman zizkion Marthalerri: janaria, ostatua, laguntasuna... «Eta jasotzen duzunaren zati txiki bat bertzerik ez duzu ematen», adierazten du berak. «Horregatik, zazpi urte bizikleta gainean eman eta gero, ezin duzu bakarrik kilometroez eta matxurez hitz egin. Jendeari hitza eman behar zaio, munduko bizimodu oso desberdinen berri eman behar da». Marthalerren ustez, munduaren aurpegi gogorra eman ohi da, baina berak aurpegi “atseginagoa” ikusi du, “pertsona arruntan eguneroko bizitza”. (Asier Azpilikueta)

- 
- 1 jak: Asiako mendietan bizi den bufaloaren antzeko abere handia
  - 2 ordoki: lautada, zelai; menditsua ez dena
- 

**A. ULERMENA (2 p.)**

Erantzun galdera hauei:

1. Marthalerrek non eta noiz hasi zuen bere bidaia eta non eta noiz bukatu?
2. Non egon zen Afrikara joan baino lehen?
3. Bere bidaia luzeetan zein garraio mota erabiltzen zuen eta non hartzen zuen ostatu?
4. Zer esan nahi du “jendeari hitza eman behar zaio” esaten duenean?

**B. GAIA ETA LABURPENA (2 p.)**

Gehienez, bost lerro.

**C. MOLDATU ESALDIAK (2 p.)**

Ondorengo lokailuetako bat erabiliz: *halere, halaber, ordea, beraz*

1. Marthalerrek bufaloaren itxura zuen. Tibetarrek *jak* izena eman zioten.
2. Bizikletaz mugitzen zen. Lau kontinente zeharkatu zituen.
3. Alaskara joan zen. Lurmutur hirira ere joan zen.
4. Jendeak gauza asko eman zizkion. Berak jendeari jaso zuenaren zati txiki bat baino ez zion eman.

**D. Idazlana. (4 p.)**

25 lerro

Gaia: ***Bidaiak***

- Zer iruditzen zaizu Marthalerren bidaia?
- Zuri zelako bidaiak gustatzen zaizkizu?
- Nola prestatuko zenuke zure gustuko bidaia?
- Zer egingo zenuke beharrezko finantziarioa lortzeko?

**Selektibitatea 2004**  
**Euskara eta Literatura (Azterketa / UZTAILA)**

*Homo economicus*

*Homo economicus*-a analisi ekonomikoan pertsonaia oso ezaguna da: guztiz arrazionala, berekoia, independentea, beti osasuntsua, inoiz ez gaztegia eta ez zaharregia ere, merkatuan oso aktiboa. Eta kontuan edukita nola mugatu duen ekonomiak bere analisi esparrua, ezinezkoa zaigu beste itxurako bateko aktorea imajinatzea. Baina guk, behintzat, ez dugu horrelakorik ezagutzen eta, gutxienez, erakusten duen independentzia ez da egiazkoa. Denok, bizitzan zehar, askotan, besteen laguntza beharrean izaten gara. Nor egiten da gure kargu horrelakoetan? Gaur arte, besteak zaintzea gehienetan familiako emakumeen ardura izan da, eta lan hori isilik egin ohi dute, esker handirik jaso gabe. Jakina, emakumeen artean ezberdintasun handiak daude, eta nahikoa normala da errenta maila altuko emakumeak lan horiek beste emakume pobreego batzuei pasatzea, sarritan emakume inmigranteei.

Zainketa lanak ez dira linealak izaten; bizitza zikloaren arabera aldatzen dira, eta denbora asko hartzen dute tartean ume txikiak daudenean, gure inguruan ezbeharren bat gertatzen denean, senideak gaixotzean eta zahartzean. Bestalde, inkesten arabera, gizonezkoen partaidetza emakumeena baino askoz txikiagoa da eta, gainera, emakumeena baino linealagoa, hau da, bizitzan izandako aldaketek, ustekabekoek zein ohikoek, apenas aldatzen duten haien ardura. Alde horretatik, gizonezko asko *homo economicus*-aren antzera portatzen dira; baina zertan geratuko lirateke gizon ekonomikoak emakume zaintzaileak desagertuz gero? Ezerezean, berehala urtuko lirateke.

Eta ez bakarrik gizon ekonomikoak: sistema guztia ere kolokan geratuko litzateke. Ekonomia, merkatuaz bakarrik arduratzen da, produkzioaz, eta merkatutik kanpoko egindako lanak, erreprodukzio lanak, etxeoak, ahaztu egiten ditu, eta balio ekonomikorik ematen ez dutenez, askotan, ezkutuan geratzen dira.

Seguru asko, ez genioke *homo economicus*-ari hainbesteko garrantzirik eman behar. Ez genuke inoiz begi-bistatik galdu behar azken helburua pertsonak hobeto bizitzea dela, ezin dela dena dirura mugatu. On egingo liguke begirada, tartean behin merkatutik kendu eta esfera pribatuan ipintzeak. Munduaren itxura aldatuko liguke eta, seguru asko, beste behar batzuk agerian geratuko lirateke. (Mertxe Larrañaga)

**A. ULERMENA (2 p.)**

Erantzun galdera hauei:

1. *Homo economicus*-a benetan al da hain dotorea eta independentea? Zergatik?
2. Zer egiten dute sarritan emakume etorkinek?
3. Zer esan nahi du “zainketa lanak ez dira linealak” esaten denean?
4. Zergatik jarriko litzateke kolokan sistema guztia emakume zaintzaileak desagertuz gero?

**B. GAIA ETA LABURPENA (2 p.)**

Gehienez, bost lerro.

**C. MOLDATU ESALDIAK (2 p.)**

Ondorengo lokailuetako bat erabiliz: *nolanahi ere, hala ere, ondorioz, beraz*

1. Ekonomia merkatuaz arduratzen da. Merkatutik kanpo egindako lanak.
2. Sistema ekonomikoa autonomo bezala azaltzen zaigu. Nabarmena da erreprodukzio lanik gabe ez lukeela luzaro iraungo.
3. Inkesten arabera, emakumeek etxeko lanaren %75etik gora egiten dute. Gizonen partaidetza askoz txikiagoa da.
4. Bizitzan, noizbait, denok dugu besteen laguntzaren beharra. Merezi du hori kontuan izatea.

**D. IDAZLANA. (4 p.) 25/30 lerro**

Gaia: **Zaintza lanak eta ekonomia**

- Ezagutzen dituzun zaintza lanak.
- Zaintza lanen garrantzia.
- Ordaindu gabeko zaintza lanek merkatuan duten eragina.
- Egunero zertan ematen dugun denbora (lanean, joan-etorrietan, kirolean, telebista ikusten eta kirolean, lo egiten, norbera zaintzen, besteak zaintzen...).
- Etorkizunean egongo diren aldaketak.

**Selektibitatea 2005**  
**Euskara eta Literatura (Azterketa / EKAINA)**

*IKAROREN AMETSA BETETZEN*

Hegan egiteko gai da gizakia. Beno, laguntza txikiren bat beharrezkoa dugu, egia da, baina txorien alboan alde batetik bestera ibiltzeko kapaz gara! Egia esan, hegan egiteko era ugari dauzkagu: hegazkinak, helikopteroak, hegazkin ultra arinak... Baina horiek, azken finean, ortopediko samarrak dira, askotan autobus batean zoazen ez baituzu bereizi ere egiten. Batez ere, bidaia lo zoazela egiten baduzu, gehienok bezala. Hegaldiaren sentsazio biziena jausgailu, delta hego eta parapentearekin lortzen da, dudarik gabe.

Aipatutako hiru modalitateen artean badira antzekotasun nabariak, baina beste gauza batzuetan ez dute zerikusik. Hiruretan ia bizkar hutsean zoaz; ez duzu inguratzen zaituen kabina edo estrukturarik; horregatik, handiagoa da hegan egitearen irudipena. Baina hortik aurrera, zerikusi handirik ez dute. Jausgailuarekin hegazkin batetik egiten da jauzi, eta hasieran erortzen ari zarela ematen du, ez hegan egiten ari zarela. Delta hegoarekin eta parapentearekin, aldiz, lurretik aineratzen zara, txorien moduan. Behin airean egonda, ordea, guztiz desberdinak dira biak. Delta hegoan etzanda bezala zoaz, eta parapentean erdi eserita; eta modu desberdinean erabiltzen dira biak. Delta hegoarekin, gainera, abiada handiagoa lortzen da parapentearekin baino; azken hau lasaiagoa da.

Parapentea praktikatzeko pazientzia handia behar da. Izan ere, gerta daiteke mendi puntara ailegatu, eta ordu pare batez haizea aldatu edo indartu zain egon behar izatea eta, ondoren, hegan egin gabe etxera itzuli behar izatea. Eguraldiak zerikusi handia du parapentearekin.

Aldiz, teknika ez da oso zaila. Ikastaro bat eginez gero, laugarren egunerako zu bakarrik hasten zara hegan egiten. Hori neurri batean arriskutsu samarra izan daiteke, konfiantza hartzen baituzu, eta orduan datoz sustoak. Izan ere, zailena haize-lasterrei, haizearen norabideari eta abarri antzematen, aprobeztatzen eta kontrolatzen jakitea da, eta horretarako denbora gehiago behar da. (Batiste Ezeiza. *BERRIA*)

---

**A. ULERMENA (2 p.)**

Erantzun galdera hauei:

1. Jausgailuarekin lurretik aineratzen al zara?
2. Delta hegoa ala parapentea, zein da abiada handiagoa lortzen duena?
3. Zergatik behar da pazientzia handia parapentea praktikatzeko?
4. Erraza al da parapentea praktikatzea?

**B. GAIA ETA LABURPENA (2 p.)**

Gehienez, zortzi lerro.

**C. MOLDATU ESALDIAK (2 p.)**

Ondorengoetatik dagokiona aukeratuz: *-(e)la, normalean, dena den, bait-*

1. *Ekipo oso batek 2.000 euro inguru balio ditu / Ekipo osoa aloka daiteke*
2. *Batistek esan digu / "Pilotu autonomia izateko azterketa egin behar da eta baimena atara"*
3. *Nahikoa ibilbide zailak dira / Ez dira denak iristen helmugara*
4. *Giro ezin hobea eta solidarioa da parapentearen ingurukoa / Beti dago norbait zurekin joateko*

**D. IDAZLANA. (4 p.)**

20 lerro

Gaia: *Ez esan ez duzunik inoiz amets egin txorien artean ibiltzearekin!*

Zuk zeuk asmaturiko gidoia jarraituz, konta ezazu zure ametsa.

**Selektibitatea 2005**  
**Euskara eta Literatura (Azterketa / UZTAILA)**

*BARNE OREKA*

**Ying Yang**

**Konpainia:** Txinako Zirkua Nazional Handia

**Zuzendari artistikoa:** Li Xining. **Zuzendaritza teknikoa:** Ai Bing

**Koreografiak:** Liu Yongzhong

Gauza jakina da Cirque de Soleil gurera etorri zenetik erabat suspertu dela zirkuarekiko zaletasuna. Eta pozteko modukoa da, zirkua arte eszeniko zaharretarikoa delako eta berriztatze behar gorria zeukalako, batez ere gure hegoaldean, non frankismoak ekarritako isolamenduak zirkuaren gainbehera penagarria eragin zuen, beste gauza askoz larriagoen artean. Anartean, Europako beste muturrean, zirkuaren loraldia gertatzen zen, eta ez bakarrik sistema komunistek kulturari emandako garrantziagatik, baizik eta zirkua trebetasunak herri haien kulturaren zati pisutsua direlako. Gauza bera esan daiteke Txinaren kasuan, bai alde kulturei buruz bai sistemak zirkuari emandako lehentasunaz.

Baina herri haietako zirkuak ere nolabaiteko berriztapena behar zuen, Mendebaldean arrakasta lortu nahi izanez gero, eta hor sartzen da jokoan Li-Xining-en karisma. Haren curriculumak ikusita eta Cirque de Soleilen egindako ekarpen artistikoak kontuan hartuta, ezinbesteko elementutzat jo dezakegu emakume hori Txinako Zirkua Nazional Handiak izandako bilakaera ulertzeko.

Gauzak horrela, nabaria da gaurko estetikara hurbiltzeko ahalegina, beti ere Ekialde urruneko erroetatik abiatuta. Orain emanaldia ez da saio edo ekinaldi akrobatikoen batuketa hutsa, osotasunean hartu beharreko produktua baizik. Jantziek, makillajeak, koreografiak eta argiek kohesio sendoa sortzen dute ekinaldi guztien artean, eta osotasun horretatik emozionalki biziberritua irtengo da ikuslea.

Kanadako konpetentziari erreparatuta, txinatar zirkua ez da hain teatrala izaten; zirkuagoa da. Kasu honetan, baina, garrantzia eman diete saioen arteko koreografieei eta horrek denbora apur bat kendu die akrobazia saioei. Alde horretatik, nik luzapen gehiago eskertuko nukeen bertikalean edo diabolotan, badirudielako ikuslea nekatzeko beldurrez ibili direla, eta hori dela-eta ez dietela zuku guzti-guztia atera trebetasun batzuei. (Agus Pérez. *BERRIA*)

---

**A. ULERMENA (2 p.)**

Erantzun galdera hauei:

1. Zergatik behar zuen zirkuak berriztatzea hemen?
2. Nor izan da ezinbesteko Txinako Zirkua Nazionalaren berriztapenean. Zergatik?
3. Zerk ematen dio kohesioa ikuskizunari?
4. Zeinek du akrobazia saio gehiago, Cirque de Soleilek (Kanadakoak) ala Txinako Zirkuak?

**B. GAIA ETA LABURPENA (2 p.)**

Gehienez, zortzi lerro.

**C. MOLDATU ESALDIAK (2 p.)**

Ondorengoetatik dagokiona aukeratuz: *horretarako, -(e)la, aldiz, bait-*

1. *Yongzhong-ek adierazi du / "Buruaren eta gorputzaren arteko orekak baino ez du lortzen ezinezkoa dirudiena"*
2. *Ez da izar handirik egongo / Teknika guztiak menperatzen dituzte guztiak*
3. *Estetika da nagusi emanaldian / Ez horrenbeste indarra eta arriskua*
4. *Gorputzari gorazarre egin nahi diote saioan / Mugimendu dotore bezain ezinezkoak erakutsiko dituzte*

**D. IDAZLANA. (4 p.)**

20 lerro

Gaia: *Zirkua*

Zeure esperientziak kontatuz, antola ezazu idazlana gidoi propioa erabiliz.

**Selektibitatea 2006**  
**Euskara eta Literatura (Azterketa / EKAINA)**

**BEHARREZKO DEN OHITURA**

Erlaxatzen garenean nerbio sistemak ohi baino maila apalagoan egiten du lan. Beraz, gure eguneroko bizitzako estatusunei oreka osasuntsu bat emateko bide garrantzitsua da erlaxazioa. Gaur egun, erlaxazioa lantzeko teknika ugari garatu dira: muskular progresiboa, pasiboa, bistaratzea; eta psikologiatik kanpo yoga, taichi... Bakoitzak bere erabilera zehatza dauka baina, oro har, teknika baino garrantzitsuagoa den zerbait dago: irmotasuna. 10-20 minutuko erlaxazio saioak egin behar dira, egunero. Hobekuntza lortzeko kirolean entrenamendua behar dugun moduan, erlaxazioan irmotasuna.

Oso erraz egiten da, gainera: begiak itxi, eta pentsatu birrikak eta sabela eskusoinu moduko bat direla. Airea suabe-suabe hartuko dugu, sudurretik, hauspoa bete arte. Beteta dagoenean, bat-bi-hiru zenbatu. Orduan ahotik botako dugu airea, poliki-poliki, hauspoa hustu arte. Hauspoa bete eta beste hamar aldiz egin hori. Begiak itxita edukitzearekin bakarrik erlaxatu gaitezke. Garunak horretarako uhin batzuk sortzen ditu.

Hona hemen erlaxatzeko beste teknika erraz bat: begiak itxita, imajinatu zuen gustuko leku, oroitzapen edo bidaia bat. Gogoratu orduko xehetasunak: zaratak, ahotsak, koloreak, ukitutako gauzak eta abar. Erabili zentzumen guztiak, poliki-poliki ikusten duzun eszenatoki hori dastatzeko.

Bide bat edo beste bat erabili, gogoratu egunero-egunero eginda erlaxazio hori sakonagoa izango dela. Halaber, erraztasun handiagoa lortuko dugu edozein lekutan edo unean lasaitzeko. Horixe da gakoa.

Erlaxazioa asko erabiltzen da. Asko laguntzen du antsietate kasuetan, fobiak edo beldurrak lantzeko eta depresio batzuetan. Gaur aipatu dizkizuedan teknikak, osasungarriak ez ezik ludikoak ere izan daitezke.

(Arantza Quecedo. *BERRIA*)

---

**A. ULERMENA (2 p.)**

Erantzun galdera hauei:

1. Erlaxazioa, zergatik da ona?
2. Nola erlaxa zaitezke?
3. Testuan aipatzen direnetatik zein da gehien gustatzen zaizun erlaxazio teknika?
4. Erlaxatzeko orduan, zer da teknika baino garrantzitsuagoa?

**B. GAIA ETA LABURPENA (2 p.)**

Gehienez, zortzi lerro.

**C. MOLDATU ESALDIAK (2 p.)**

Ondorengoetatik dagokiona aukeratu: *jakina, beraz, esate baterako, ordea*

1. *Erlaxazioa lantzeko teknika ugari daude / Pasiboa, muskular progresiboa, bistaratzea, yoga...*
2. *Erlaxazioak asko laguntzen du antsietate kasuetan / Asko erabiltzen da fobiak edo beldurrak lantzeko*
3. *Estresak gaixotu egiten gaitu / Erlaxazioak sendatu*
4. *Non-nahi praktikatu dezakegu erlaxazioa / Horretarako erlaxazio teknikak ezagutu behar dira*

**D. IDAZLANA. (4 p.)**

20 lerro

Deskribatu erlaxazio teknika erraz bat: imajinatu eta deskribatu zure gustuko leku, oroitzapen edo bidaia bat. Gogoratu eta deskribatu orduko zaratak, ahotsak, koloreak, ukitutako gauzak eta abar.

**Selektibitatea 2006**  
**Euskara eta Literatura (Azterketa / UZTAILA)**

**ELKARRENGANAKO BEGIRUNEA**

BEGIRUNEA konpainiak, afrikar eta euskal kulturen nahasketa bat baino gehiago, bi kulturen partekatzea erakusten duen agerraldi berri bat sortu du. Kalitateko agerraldi intimista eta aldarrikari hori Miarritzeko gaztetxean aurkeztu zuten duela gutxi.

Jakina da helduek isilpean pentsatzen dutena haurrek natural-natural oihukatzen dutela. Jakina da, halaber, Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak ez direla beti baketsuak izan. Eta bukatzeko, jakina da nortasun harrotasun soberak ezberdintasuna gaitzestea bultzatzen duela. Aurreiritzi horietatik abiatuz, BEGIRUNEA konpainiak dantza, antzerkia eta perkusioa nahasten dituen sorkuntza bat aurkeztu berri du.

Aipaturiko konpainia sei kide gaztez osatua da: bi dantzari, hiru musikari eta teknikari bat. Hiru afrikar eta bi euskaldun. Aspalditik dabilta dantza eta musikaren munduan. Batzuek makila handi dantza ikasten zuten bitartean, besteek sabaar dantza ikasten zuten. Batzuek txalaparta jotzen zuten bitartean, besteek djembearen larruari oihu eginarazten zioten. Bi ibilbide gurutzatu egin dira, eta sortu da bi kulturak nahasteko proiektua.

Bederatzi hilabete entseguak egiten pasatu dituzte taldeko kideek. Dantzak ikasi, mezua zorroztu, musika idatzi, argiak osatu, antzerkia landu... Bi haur ezberdinen arteko topaketa kontatzen du ipuinak, modu sinplean. Bakoitzaren harrotasuna dela eta, hasieran ez dute elkar ulertu nahi. Baina laster komunikatzeko tresna berri bat atzeman dute: dantza. Ohartu dira dantza adierazpen molde unibertsala dela eta elementu komunak atzeman daitezkeela hain urruneko diruditen bi kulturen artean. Mezuari dagokionez, mestizaia eta tolerantzia goraiatu nahi dituzte. Eta mezu hori hedatzeko, antzerkia eta dantza nahasi behar izan dituzte.

BEGIRUNEA konpainiak hedatzeko xedea dauka. Euskal Herri osoan ibili nahi lukete. Horrez gain, eskoletan ibili nahi lukete. Konpainiako kide batek dioenez «*nahi genituzke ordu erdiko prestakuntzak eskaini eskoletan: ordu erdiz afrikar dantza, ordu erdiz euskal dantza, ordu erdiz perkusioa... Eta bukaeran gure sorkuntza emanen genuke haurren aitzinean. Biziki hezitzailea izango litzateke haientzat eta guretzat. Horretarako prestaketa on bat behar da, baina lortuko dugu*».

Espero dezagun proiektu sendo horrek behar duen sostengua lortzea. ([www.matraka.info/erreportaia](http://www.matraka.info/erreportaia))

**A. ULERMENA (2 p.)**

Erantzun galdera hauei:

1. Zer aurkeztu berri du BEGIRUNEA konpainiak?
2. Zer bultzatu nahi du sorkuntza horrekin?
3. Zergatik aukeratu dituzte dantza eta antzerkia?
4. Ezberdintasunak gaitzestea ona al da? Zergatik?

**B. GAIA ETA LABURPENA (2 p.)** Gehienez, zortzi lerro.

**C. MOLDATU ESALDIAK (2 p.)**

Ondorengoetatik dagokiona aukeratu: *esate baterako / ordea / ondorioz / beraz*

1. *Begirune konpainiaren proiektua oso interesgarria da / Espero dezagun proiektuak behar duen sostengua lortzea*
2. *Dantza adierazpen molde unibertsala da / Dantzaren bidez, urruneko diren bi kulturen arteko elementu komunak adieraz daitezke*
3. *Nortasun harrotasun soberak ezberdintasunak gaitzestea bultzatzen du / Begirune konpainiaren lanak elkar ulertzea bultzatzen du*
4. *Komunikatzeko tresna ezberdinak erabiltzen dituzte / Musika, dantza eta antzerkia dira aukeratu dituzten bitartekoak*

**D. IDAZLANA. (4 p.)** 20 lerro

Gaia: *Elkarrenganako begirunea*

- Kultura ezberdintasunak eta batak bestea ez ezagutzeak sortzen dituen gatazkak.
- Ezberdintasunak aberasgarri.
- Zer egin elkar ezagutzeko: testuan agertzen den esperientziaren balorazioa..